

Altzako berrikuntzei buruzko informazioa

Donostiako Alkatetza buru belarri ari da Udalak Altzan egin nahi dituen berrikuntza lanen inguruko informazioa zabaltzen. Hala, proiektuei buruzko erakusketa bat dago Casares kultur etxean apirilaren 23ra bitarte. Horrez gain, Udalak hogeitaz aldizkaritxo bat plazaratu du proiektu guztiak bilduz, eta Altzako herritarren postontzietan banatu du.

24 egitasmo biltzen dira aldizkaritxoan. Proiektu batzuk jada onartuta daude eta zenbait martxan dira. Beste hainbat, ordea, oraindik onartu gabe daude. Esate baterako, lehentasuneko lekua du Auditx Akular proiektu istilutsuak. Larratzoko parkea eta aparkalekua, Nerecan inguruko berritze lanak eta abar ere aipatzen dira bertan.

Udalaren asmoetako bat altzatarren iritziak jasotzea ere bada. Orain arte, behintzat, egitasmoak zeresana eman du altzatarren artean. Batzuek begi onez ikusi dute emandako informazioa. Beste batzuk, ordea, kexu azaldu dira: Udalaren propaganda besterik ez dela eta bere mesederako erabiltzen duela diote.

Ezezkoa Loiolako etxeei


Hirigintza Sailak ezetz esan dio PPK Loiolan 1.500 etxebizitza egiteko egin proposamenari. PPK, etxebizitzok, Loiolako Hipikan egitea proposatu zuen, baina Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, proiektua "bideraezina" da. Besteak beste, ai-

patutako etxeak ur araztegitik gertuegi egongo lirakeela dio Letamendiak.

Joan den ostiralean, hilak 5, Espainiako Defentsa Ministerioiko zenbait ordezkari Donostiara etorri ziren eta horren harira, PPK proposamena ezagutarazi zuen. Jakinaenez, Defentsa Ministerioak Lore Tokiko jarduera bertan behera uzteko asmoa du eta beraz, PPK Hipikako zerbitzuak hara eraman eta libre geratutako lursailean 1.500 etxebizitza, haietatik 1.000 babes ofizialekoak, eraiki zitezkeela esan zuen. Kontuan hartu behar da inguru honetan araztegia eta Urumeako autobia egitekoak direla eta ondorioz, Hipikako lur eremua txikiagoa izango dela.

Jorge Letamendia zinegotziak arrazoi teknikoak argudiatu ditu PPri ezetz esateko: Hipikan "hirugarren sektoreko erabilerak eta azpiegitura publikoak besterik ezingo dira jarri". Loiolako ur araztegia etxeetatik gertu egongo litzatekeela gaineratu du. Hori bai, Letamendiaren hitzetan, "argi dago Hipikako lurragu mugatuago geratuko direla, eta ez da inongo arazorik Hipikaren egoitza toki egokiago batera eraman behar ote den aztertze-ko".

Etxebizitzaren arazoaren ildo beretik, bestalde, Batasunak "benetako konpromisoa" eskatu dio Udalari. Batasuneko zinegotzi Miren Zinkunegik dioenez, Odon Elorzak autokritika egin behar du etxebizitza politikari buruz.



Donostia, zine hiria

Donostiak "Zine Hiriak" egitasmoa sortzeko hitzarmena sinatuko du ekainean, Biarritz, Oporto, Salamanca eta Galiziako Santiagoarekin batera. Hitzarmenaren helburua hiriotan filmak errodatzeko aukera erraztea da, zine proiektuak erakartzea, alegia. Hitzarmen honekin ikusentzunezko enpresei zenbait beharpen, dirulaguntzei buruzko argibideak eta bestelako informazioak eskaini nahi zaizkie, besteak beste.

